# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 536

*2307/2019 EBAZPENA, abenduaren 10ekoa, Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez, lau urterako izendatu da, aldi baterako, luzatzeko aukerarekin, Luís Jesús Esnaola Ormazabal jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko atal sanitarioko buru, espezialitate honetan: Anestesiologia eta Bizkortzea.*

Azaroaren 5eko 1998/2018 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko atal sanitarioko buru lanpostua lehiaketa bidez betetzeko, espezialitate honetan: Anestesiologia eta Bizkortzea.

Epaimahai kalifikatzaileak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Luís Jesús Esnaola Ormazabal jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko atal sanitarioko buru, espezialitate honetan: Anestesiologia eta Bizkortzea.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. Artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Luís Jesús Esnaola Ormazabal jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko atal sanitarioko buru izendatzea aldi baterako, espezialitate honetan: Anestesiologia eta Bizkortzea.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, eta aldi baterakoa izango da luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta ondorioetarako data hau izango da: 2019ko abenduaren 3a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena onartzen, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik, aldez aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Donostialdea ESIari jakinaraztea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2019ko abenduaren 10a.

Donostialdea ESIko zuzendari gerentea.

E (53/2019 Ebazpena, urtarilaren 24koa).

Pertsonaleko zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.